EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

<table>
<tr><td colspan="2"><u>EZOHIKO OSOKO BILKURA / PLENO EXTRAORDINARIO</u><br><br><u>2025EKO MAIATZAREN 14 / 14 DE MAYO DE 2025</u></td></tr>
<tr><td colspan="2">BERTARATUAK / ASISTENTES</td></tr>
<tr><td><u>IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL</u><br><br>D. Daniel Salazar Irusta jauna</td><td><u>ALKATEA / ALCALDE</u><br><br>D.  Jon Iraola Iriondo jauna<br><br><u>ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE</u><br><br>Dña. Vanesa Hortas Mojón andrea<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti jauna<br>D. Luis Vicente Castellanos de Abajo<br>D. Jon Pérez Illana jauna<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna<br>Dña. Eva Juez Garmendia andrea<br>D. Andoni Ameztoy Barrón jauna<br><br><u>ZINEGOTZIAK / CONCEJALES</u><br><br>Dña. Sofía Archeli Mesonero andrea<br>D. Andoni Zabala Atristain jauna<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna<br>Dña. Arantzazu Mata Eguiguren andrea<br>D. Julián Manuel Díaz Gutiérrez jauna<br>Dña. Hiart Cabrera Ansola andrea<br>Dña. Ainhoa Ormazabal Igoa andrea<br>Dña. Aiora Arrieta Arreitunandia andrea<br>Dña. María Elena Ibañez Anuncibay andrea<br>Dña. María Mercedes Garate Larrañaga andrea<br>Dña. María Isabel Fernández Pejenaute andrea</td></tr>
</table>

*Akta hau Osoko Bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:*

*La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:*

https://eibar.seneca.tv:443/watch?id=YjdiYTNmY2ItOTJjNS00MjI3LWEyNzUtNzZmODFhMzdmMTE3

*Bilkuraren irudi- eta audio-grabazioen fitxategia aztarna elektroniko honekin identifikatzen da. Kodea:*

*El fichero resultante de la grabación de las imágenes y audio de la sesión se identifica con la siguiente huella electrónica. Código:*

SHA512 - SHA512 -
81338324c01e8c8947a0e569bebe354926cd8c544e12b27ab408647e33ad376d9f98953
26872549c0d3301d9d80a5030c1972d512e041aa7f02418d69cfdc3f2

Eibarko udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hogeita bosteko maiatzaren hamalauan, arratsaldeko zazpiak izanik, Udalbatza bildu zen ohiko bilkuran, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las diecinueve horas del día catorce de mayo de dos mil veinticinco, se reune en sesión ordinaria el Pleno Municipal, formado por las señoras y señores anteriormente mencionadas/os.

Alberdi Arriola eta Barruetabeña Garate andreak ez ziren etorri.

No asisten las señoras Alberdi Arriola y Barruetabeña Garate.

Mata andreak (Eibarko EH Bildu) Barruetabeña Garate andreak eskuordetutako botoa du, Nerea Barruetabeñaren ordezkaritza-idatziarekin bat etorriz; idatzia Udal Idazkaritzan dago.

La Sra. Mata (Eibarko EH Bildu) ejerce el voto delegado por la Sra. Barruetabeña Garate, de conformidad al escrito de delegación de Dña. Nerea Barruetabeña obrante en Secretaría municipal.

**Alkate-udalburu jaunak** hasiera eman dio bilerari.

**GAI-ZERRENDATIK KANPO**

Gai-zerrendari ekin aurretik, **alkate-udalburu jaunak** proposatu du honako gai hau izatea zerrendaren 2. puntua: **EUSKARALDIA 2025, ADIERAZPEN INSTITUZIOANALA.**

BOZKETAREN EMAITZA: GAIA GAI ZERRENDAN SARTZEA ONARTU DA.

ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (5), Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Podemos, Ezker Anitza - IU, Alianza Verde (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Ondorioz, goian aipatutako gaia sartu egin da gai-zerrendaren 2. puntu gisa.

Jarraian, **GAI-ZERRENDA**RI heldu zaio

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión.

**FUERA DEL ORDEN DEL DÍA**

Previo a abordar el orden del día, el Sr. **Alcalde-Presidente** propone la incorporación del siguiente asunto, como 2º punto del orden del día: **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EUSKARALDIA 2025.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: SE APRUEBA LA INCORPORACIÓN AL ORDEN DEL DÍA.

VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (5), Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Podemos, Ezker Anitza - IU, Alianza Verde (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

En consecuencia, queda incorporado el asunto reseñado como 2º punto del orden del día.

Seguidamente se aborda el **ORDEN DEL DÍA**

**1. EIBARKO ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIAREN 7. ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA, "TXONTA 125 JARDUKETA INTEGRATUAN" ETA ERREKATXU 17, 19 ETA 21 ZENBAKIETAN.**

**1. APROBACION PROVISIONAL DE LA 7º MODIFICACION DEL PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA DE EIBAR EN EL AMBITO "AI-125 TXONTA" Y LOS EDIFICIOS 17,19 Y 21 DE ERREKATXU.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 13 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (5).

VOTOS A FAVOR: 13 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (5).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 7 - Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Podemos, Ezker Anitza - IU, Alianza Verde (1).

ABSTENCIONES: 7 - Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Podemos, Ezker Anitza - IU, Alianza Verde (1).

"Eibarko Udala Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 7. aldaketa sustatzen ari da, zeina hirigintza-arauei eta eremu hauei eragiten dien: 125 J.I. Txonta eta A.5.2 Armagin (Errekatxu kalea 17, 19, 21).

"El Ayuntamiento de Eibar está promoviendo la 7ª modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar, que afecta a las normas urbanísticas y a los ámbitos AI.125 Txonta y A.5.2 Armagin (Errekatxu kalea 17, 19, 21).

**AURREKARIAK**

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.

**ANTECEDENTES**

Plan General de Ordenación Urbana vigente.

Gaur egun Eibarren indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 2008ko urtarrilaren 22ko GAOn argitaratutakotik eta ondoren onartu diren sei aldaketa puntualetatik eratorritakoa da. Hauxe da Plana osatzen duten dokumentuen zerrenda:

El Plan General de Ordenación Urbana actualmente vigente en Eibar es el proveniente del publicado en el BOG de 22 de enero de 2008 y de las seis modificaciones puntuales que han sido aprobadas con posterioridad. Esta es la relación de los documentos que lo conforman:

- 0 dokumentua: Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko abenduaren 18an onartutako Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren agiri bategina (2008ko urtarrilaren 22ko GAO). Oharrak: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak partzialki baliogabetua.

- Documento 0: Documento refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar aprobado el 18 de diciembre de 2007 por la Diputación Foral de Gipuzkoa (BOG de 22 de enero de 2008). Observaciones: parcialmente anulado por STSJPV.

- 1. aldaketa: 2011ko abenduaren 26an Udalbatzak onetsia (2012ko urtarrilaren 9ko GAO). Hirigintza-arauei eragin zien, irisgarritasunaren sustapenari eta plangintzarekin bat ez zetozen eraikinen araubideari dagokienez.

- 1ª modificación: aprobado por el Pleno Municipal el 26 de diciembre de 2011 (BOG de 9 de enero de 2012). Afectó a las normas urbanísticas, en relación a la promoción de la accesibilidad y al régimen de edificaciones disconformes con el planeamiento).

- 2. aldaketa: 2012ko urriaren 23an Udalbatzak onetsia (2012ko azaroaren 30eko GAO). Hirigintza-arauei, Estaziño 118 JIko fitxa batzuei eta planoei eragin zien, eta ekipamendu komunitarioko sistema orokor berrien sorrerari: osasun-ekipamendua eta hiletetako ekipamendua.

- 2ª modificación: aprobado por el Pleno Municipal el 23 de octubre de 2012 (BOG de 30 de noviembre de 2012). Afectó a las normas urbanísticas, a algunas fichas y a los planos, en relación con la AI 118 Estaziño y a la creación de nuevos sistemas generales de equipamiento comunitario: sanitario y funerario.

- 3. aldaketa: 2013ko maiatzaren 27an Udalbatzak onetsia (2013ko urriaren 22ko GAO). Fitxa batzuei eta planoei eragin zien, hondakinak gestionatzeko azpiegitura berri baten sorrerari dagokionez (Garbigunea).

- 4. aldaketa: 2015eko apirilaren 9an Udalbatzak onetsia (2015eko apirilaren 9ko GAO). EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak osorik baliogabetua.

- 5. aldaketa: 2015eko urtarrilaren 26an Udalbatzak onetsia (2015eko otsailaren 23ko GAO). Hirigintza-arau batzuei eragin zien.

- 6. aldaketa: 2015eko urriaren 26an Udalbatzak onetsia (2015eko abenduaren 15eko GAO). Hirigintza-arauei eta fitxa batzuei eragin zien, Errebal 137.01 JI kentzeari dagokionez, eta ekipamendu komunitario kulturaleko sistema orokor berri bat sortzeari dagokionez.

Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 7. Aldaketa onartzeko prozedura, Txonta 125 Jarduera Integratuaren eremuan eta Errekatxu kaleko 17, 18 eta 21 eraikinetan.

Hauek dira Eibarko Hiri Antolamenduko

- 3ª modificación: aprobado por el Pleno Municipal el 27 de mayo de 2013 (BOG de 22 de octubre de 2013). Afectó a algunas fichas y a los planos, en relación a la creación de una nueva infraestructura de gestión de residuos: Garbigune.

- 4ª modificación: aprobado por el Pleno Municipal el 9 de abril de 2015 (BOG de 9 de abril de 2015). Anulado en su integridad por STSJPV.

- 5ª modificación: aprobado por el Pleno Municipal el 26 de enero de 2015 (BOG de 23 de febrero de 2015). Afectó a varios artículos de las normas urbanísticas.

- 6ª modificación: aprobado por el Pleno Municipal el 26 de octubre de 2015 (BOG 15 de diciembre de 2015). Afectó a las normas urbanísticas y a algunas fichas, en relación a la supresión de la A.I. 137.01 Errebal y a la creación de un nuevo sistema general de equipamiento comunitario cultural.

Procedimiento de aprobación de la 7ª modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar, en el ámbito «AI 125 Txonta» y los edificios números 17, 19 y 21 de calle Errekatxu kalea.

Estos son los antecedentes más relevantes

Plan Orokorraren 7. aldaketa onartzeko prozeduran izandako aurrekari garrantzitsuenak:

acaecidos en el procedimiento de aprobación de la 7ª modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar:

Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko irailaren 22ko erabakiaren bidez, erabaki zen Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren espedientea hastea Txonta eremuan eta Errekatxu kaleko 17., 19. eta 21. eraikinetan, eta onartu egin zen herritarren parte-hartze programa. Programaren laburpena argitaratu zen 2023ko urriaren 4ko GAOn.

Por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 22 de septiembre de 2023 se acordó iniciar el expediente para la Modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar en el ámbito de Txonta y los edificios 17,19 y 21 de Errekatxu kalea; y se aprobó el programa de participación ciudadana. Se publicó el resumen del programa en el BOG de 4 de octubre de 2023.

2024ko martxoaren 25ean, Udalaren Osoko Bilkurak hasierako onespena eman zion dokumentuari, sartu beharreko zehaztapen batzuk eginda. Era berean, erabaki zuen jendaurreko informazio-aldi bat irekitzea, ingurumen-ebaluazioaren prozedurari hasiera ematea eta eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei dagozkien txostenak eskatzea.

Con fecha de 25 de marzo de 2024 el Pleno Municipal aprobó inicialmente el documento, con una serie de puntualizaciones que han de ser incorporados al documento. Asimismo, acordó abrir un periodo de información pública, dar inicio al procedimiento de evaluación ambiental, y solicitar los informes correspondientes a las administraciones públicas con competencias sectoriales.

Bi azalpen-saio egin dira, herritarrei irekiak. Udalaren webgunean hasieran onetsitako dokumentua argitaratu da, ingurumen-dokumentazioarekin batera, bai eta dibulgaziorako beste material bat

Se han realizado dos sesiones explicativas abiertas a la ciudadanía. Se ha publicado en la página web del Ayuntamiento el documento aprobado inicialmente junto con la documentación ambiental, así como otro

ere.

material de carácter divulgativo.

Jendaurrean jartzeko izapidea irekitzeko iragarkiak argitaratu ziren 2024ko apirilaren 10eko GAOn eta 2024ko apirilaren 3ko Berria eta El Correo egunkarietan. Honako alegazio hauek jaso dira:

Se publicaron los anuncios de apertura del trámite de información pública en el BOG de 10 de abril de 2024 y los periódicos Berria y El Correo de 3 de abril de 2024. Se han recibido las siguientes alegaciones:

1.- 2024/05/24. ELKARREKIN PODEMOS EIBAR.
2.- 2024/06/06. J. F. M. A.
3.- 2024/06/10. D. R. C.
4.- 2024/06/10. EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO
5.- 2024/06/10. M. A. G. C.
6.- 2024/06/11. P. G. M.
7.- 2024/06/12. M. G. G. A.
8.- 2024/06/12. EIBARKO EAJ-PNV UDAL TALDEA
9.- 2024/06/12. I. J. V.
10.- 2024/06/12. I. I. A.
11.- 2024/06/13. J.L.F. G.
12.- 2024/06/13. TXONTA-17-KO JABEKIDE-ERKIDEGOA
13.- 2024/06/13. AMENABAR GRUPO PROMOTOR E INMOBILIARIO SL

1.- 2024/05/24. ELKARREKIN PODEMOS EIBAR.
2.- 2024/06/06. J. F. M. A.
3.- 2024/06/10. D. R. C.
4.- 2024/06/10. EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO
5.- 2024/06/10. M. A. G. C.
6.- 2024/06/11. P. G. M.
7.- 2024/06/12. M. G. G. A.
8.- 2024/06/12. GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV DE EIBAR
9.- 2024/06/12. I. J. V.
10.- 2024/06/12. I. I. A.
11.- 2024/06/13. J.L. F. G.
12.- 2024/06/13. COMUNIDAD PROPIETARIOS TXONTA-17
13.- 2024/06/13. AMENABAR GRUPO PROMOTOR E INMOBILIARIO SL

Honako txosten hauek jaso dira administrazio sektorialetatik:

Se han recibido los siguientes informes de las administraciones sectoriales:

- 2024/04/22. Gipuzkoako Foru Aldundia. Bide Azpiegituretarako Departamentua.
- 2024/09/27. Ura, Uraren Euskal Agentzia - Agencia Vasca del Agua.
- 2024/11/04. Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikorako Ministerioa. Telekomunikazioen eta Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Antolamenduaren Idazkaritza Nagusia.
- 2024/11/07. Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioa. Aireportuen eta Aire Nabigazioaren Zuzendariordetza Nagusia.

- 2024/04/22. Diputación Foral de Gipuzkoa. Departamento de infraestructuras viarias.
- 2024/09/27. Ura, Uraren Euskal Agentzia - Agencia Vasca del Agua.
- 2024/11/04. Ministerio para la Tansformación Digital y de la Función Pública. Secretaría General de Telecomunicaciones y Ordenación de los Servicios de Comunicación audiovisual.
- 2024/11/07. Ministerio de Transportes y movilidad sostenible. Subdirección General de Aeropuertos y Navegación Aérea.

Ondoren, 2025eko apirilaren 11n, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuak egindako txosten bat jaso zen.

Posteriormente, con fecha de 11 de abril de 2025 se ha recibido un informe elaborado por el Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Inpaktuari buruzko ebaluazioei dagokienez, hauxe da egoera: Eusko Jaurlaritzak Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2025eko urtarrilaren 21eko Ebazpena eman du, zeinaren bidez formulatzen baita Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 7. aldaketaren ingurumen-txosten estrategikoa, Eibarko Txonta 125 JI eremuari eta Errekatxu kaleko 17., 19. eta 21. eraikinei buruzkoa. 2025eko otsailaren 13ko EHAAn argitaratu da. Txostenak zehazten du ez dela

En cuanto a las evaluaciones de impacto, esta es la situación: por el Gobierno Vasco, se ha emitido la Resolución de 21 de enero de 2025, del Director de Administración Ambiental, por la que se formula informe ambiental estratégico de la 7ª Modificación del Plan General de Ordenación Urbana relativa al ámbito AI-125 Txonta y edificios 17, 19 y 21 de Errekatxu kalea, en Eibar (Gipuzkoa). Se ha publicado en el BOPV de 13 de febrero de 2025. El informe determina que no se prevé que el plan vaya a producir

aurreikusten planak ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik ingurumenean, eta, beraz, ez dela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik egin behar, baldin eta neurri zuzentzaile eta babesle egokiak hartzen badira; genero-inpaktuari dagokionez, apartatu bat sartu da dokumentuaren memorian; eta, hizkuntza-inpaktuari dagokionez, memorian bertan sartu da, eta udaleko euskara-zerbitzuak txosten bat egin du. Inpaktu akustikoari buruzko azterlana eta jasangarritasun energetikoari buruzkoa egin dira.

efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y, por tanto, no debe someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria, siempre que adopten las medidas correctoras y protectoras procedentes; en cuanto al impacto de género, se ha incluido un apartado en la memoria del documento; y en cuanto al impacto lingüístico, se ha incluido en la propia memoria y se ha emitido un informe por el servicio municipal de euskara. Se han elaborado el estudio de impacto acústico y el estudio de sostenibilidad energética.

AIBE eraikinari eta haren inguruei eragiten dien EUROPAN lehiaketari dagokionez, hasierako onespen-erabakian zehaztu zen ekipamendu publikoko P4 lurzatia aldatuko dela EUROPAN lehiaketaren proposamen irabazlearen lerrokadurak jasotzeko; eta lurzatiaren aurrealdea Txonta kalera handituko dela, okupazioa eta aprobetxamendua murriztuz, eta dokumentuan planteatutako sestrak mantenduz. Eusko Jaurlaritzak “EUROPAN 17 PROPOSAMEN IRABAZLEA EGOKITZEA" aurreproiektua jaso du, Txonta eremuari buruzkoa.

En relación con el concurso EUROPAN que afecta al edificio AIBE y sus inmediaciones, en el acuerdo de aprobación inicial se puntualizó que se modificará la parcela P4, de equipamiento público para recoger las alineaciones de la propuesta ganadora del concurso EUROPAN, aumentando el frente de parcela a la calle Txonta, reduciendo su ocupación y aprovechamiento, y manteniendo las rasantes planteadas en el documento. Se ha recibido desde el Gobierno Vasco el anteproyecto ADECUACIÓN PROPUESTA GANADORA EUROPAN 17 relativa al ámbito Txonta.

Eibarko Hirigintzako Plangintzako Aholku Batzordeak dokumentua aztertu, eta bere txostena egin du. Bilerak 2024ko

El Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico de Eibar ha analizado el documento y ha emitido su informe. Las

azaroaren 4an eta 2024ko abenduaren 11n egin dira.

reuniones se han celebrado el 4 de noviembre de 2024 y el 11 de diciembre de 2024.

Udaleko zerbitzu teknikoek aurkeztu diren alegazioei erantzuteko txostena egin dute. Txosten hori erabiliko da akordio hau arrazoitzeko.

Se ha emitido por los servicios técnicos municipales el informe de contestación de las alegaciones presentadas. El informe servirá de motivación al presente acuerdo.

Udaleko zerbitzu teknikoek egin dute Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeak Eibarko HAPOaren zazpigarren aldaketaren prozeduran hasieran onetsitako dokumentuari aurkeztutako proposamen eta alternatibei buruzko txostena. Txosten hori erabiliko da akordio hau arrazoitzeko.

Se ha emitido por los servicios técnicos municipales el informe sobre las propuestas y alternativas presentadas por el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico al documento aprobado inicialmente en el procedimiento de séptima modificación del PGOU de Eibar. El informe servirá de motivación al presente acuerdo.

Talde erredaktoreak dokumentua aurkeztu du behin-behinean onartzeko.

Por el equipo redactor se ha presentado el documento para la aprobación provisional

Udal zerbitzu teknikoek txostena egin dute eta proposatu dute dokumentua behin behinean onartzea.

Los servicios municipales han elaborado el informe correspondiente y han propuesto que se proceda a la aprobación provisional del documento.

Osoko bilkurak du behin-behineko onespena emateko eskumena, gehiengo osoz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) eta 47.2.ll) artikuluen arabera.

La competencia para la adopción del acuerdo de aprobación provisional reside en el Pleno, por mayoría absoluta, en virtud de los artículos 22.2.c) y 47.2.ll) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Dokumentua, behin-behineko onespena jaso ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorriko zaio, txostena egin dezan. Txosten hori loteslea izango da, eta lurralde-antolamenduko tresnak eta alderdi sektorialak bete beharko ditu, aplikatu beharreko araudiaren eta onartutako udalaz gaindiko proiektuen arabera, 2/2006 Legearen 90. eta 91. artikuluek eskatzen duten bezala.

El documento, una vez recibida la aprobación provisional se remitirá a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, para la emisión de su informe que será vinculante en lo referente a la acomodación del plan general a los instrumentos de ordenación territorial y a todos aquellos aspectos sectoriales que, con arreglo a la normativa aplicable y a proyectos de carácter supramunicipal aprobados, tal y como exigen los artículos 90 y 91 de la Ley 2/2006.

Goian esandakoagatik eta Hirigintza, Obra eta Ingurumen Lan Batzordearen aldeko irizpena kontutan edukita,

Por cuanto antecede y teniendo en cuenta el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente

Udalbatzarrak honako hau erabaki du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**LEHENA.-** Aurkeztutako alegazio hauek ezestea:

**PRIMERO.-** Desestimar las siguientes alegaciones:

| **ZK./Nº** | **AURKEZTU DUEN PERTSONA / PERSONA QUE LA HA PRESENTADO** |
|---|---|
| 2 | J. F. M. A. |
| 6 | P. G. M. |
| 8 | EIBARKO EAJ-PNV UDAL-TALDEA |
| 9 | I. J. V. |
| 10 | I. I. A. |

Erabaki hau banan-banan jakinaraziko zaie alegazioak aurkeztu dituzten pertsona guztiei, eta kasuan kasu arrazoitzeko erabilitako fitxa erantsiko zaie.

Se notificará individualmente a cada alegante el presente acuerdo, adjuntando como motivación la ficha correspondiente a su alegación.

**BIGARRENA.-** Alegazio hau onartzea:

**SEGUNDO.-** Estimar la siguiente alegación:

| ZK./Nº | AURKEZTU DUEN PERTSONA / PERSONA QUE LA HA PRESENTADO |
|---|---|
| 4 | EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO |

Erabaki hau banan-banan jakinaraziko zaie alegazioak aurkeztu dituzten pertsona guztiei, eta kasuan kasu arrazoitzeko erabilitako fitxa erantsiko zaie.

Se notificará individualmente a cada alegante el presente acuerdo, adjuntando como motivación la ficha correspondiente a su alegación.

**HIRUGARRENA.-** Alegazio hauek partzialki onartzea:

**TERCERO.-** Estimar parcialmente las siguientes alegaciones:

| ZK./Nº | AURKEZTU DUEN PERTSONA / PERSONA QUE LA HA PRESENTADO | ZENTZUA* / SENTIDO * |
|---|---|---|
| 1 | ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS. | Partzialki onartzea / Estimación parcial. |
| 3 | D. R. C. | Partzialki onartzea / Estimación parcial. |
| 5 | M. A. G. C. | Partzialki onartzea / Estimación parcial. |
| 7 | M. A. G. A. | Partzialki onartzea / Estimación parcial. |
| 11 | J.L. F. G. | Partzialki onartzea / Estimación parcial. |
| 12 | TXONTA-17KO JABEKIDEEN ERKIDEGOA | Partzialki onartzea / Estimación parcial. |
| 13 | AMENABAR GRUPO PROMOTOR E INMOBILIARIO SL | Partzialki onartzea / Estimación parcial. |

Erabaki hau banan-banan jakinaraziko zaie alegazioak aurkeztu dituzten pertsona guztiei, eta kasuan kasu arrazoitzeko erabilitako fitxa erantsiko zaie.

Se notificará individualmente a cada alegante el presente acuerdo, adjuntando como motivación la ficha correspondiente a su alegación.

**LAUGARRENA.-** Hirigintza-antolamenduko dokumentua behin-behinean onartzea: EIBARKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN 7. ALDAKETA "TXONTA 125 JI" EREMUAN ETA ERREKATXUKO 17,19 ETA 21 ERAIKINETAN (behin-behinean onesteko dokumentua).

**CUARTO.-** Aprobar provisionalmente el documento de ordenación urbanística: 7º MODIFICACION DEL PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA DE EIBAR EN EL AMBITO "AI 125 TXONTA" Y LOS EDIFICIOS 17,19 Y 21 DE ERREKATXU (Documento para aprobación provisional).

**BOSGARRENA.-** Behin-behinean onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko proposamena Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 28.2.a) artikuluan aurreikusitako txostena egin dezan.

**QUINTO.-** Remitir la propuesta de modificación del Plan General de Ordenación Urbana aprobada provisionalmente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, a los efectos de la emisión del informe previsto en el artículo 28.2.a) del Decreto 46/2020, de 24 de marzo.

**SEIGARRENA.-** Akordio hau alegazioak egin dituztenei jakinaraztea."

**SEXTO.-** Notificar el presente acuerdo a quienes hayan formulado alegaciones."

**2. EUSKARALDIA 2025, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

**2. DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EUSKARALDIA 2025.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (5), Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Podemos, Ezker Anitza - IU, Alianza Verde (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENCIONES: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (5), Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Podemos, Ezker Anitza - IU, Alianza Verde (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

“Euskaraldia 2025 Adierazpen instituzionalaren berri eman da:

Ikusita, Enba Batzorde Aholkulariaren proposamena,

Kontuan hartuta Erakunde, Lege eta Lurralde Gaietako Lan Batzordeak emandako aldeko irizpena,
Udal Batzarrak, honako erabakia hartu du:

**AKORDIOA**

Adierazpena instituzionala onartzea: Euskaraldia 2025.”

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EIBARKO UDALEAN ETA UDALERRIAN EUSKARALDIAREN LAUGARREN EDIZIOA SUSTATZEKO**

“Se da cuenta de la declaración Institucional Euskaraldia 2025.

Vista la propuesta de la Comisión Asesora de Enba,

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales,
El Pleno Municipal, adopta el siguiente:

**ACUERDO**

Aprobar la Declaración Institucional Euskaraldia 2025.”

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA EL IMPULSO DE LA CUARTA EDICIÓN DEL EUSKARALDIA EN EL AYUNTAMIENTO Y EL MUNICIPIO**

Euskal Herri osoko ehunka herritako milaka lagunek parte hartu zuten 2018ko, 2020ko eta 2022ko Euskaraldiaren edizioetan, erakunde publikoen zein gizarte eragileen bultzadaz.

Fueron las y los ciudadanos de cientos de localidades de Euskal Herria quienes participaron en las dos primeras ediciones, 2018, 2020 y 2022 del Euskaraldia, con el impulso de las instituciones públicas y los agentes sociales.

Eibarren ere 3.000 herritarretik gora izan dira edizio horietan "Ahobizi" edo "Belarriprest" gisa parte hartu dutenak, eta 80 entitate baino gehiagotan eratu dira "Ariguneak".

En Eibar también han sido más de 3.000 las y los ciudadanos que han participado en estas ediciones como "Ahobizi" o "Belarriprest" y se han constituido 350 "Arigunes" en más de 80 entidades.

Aurreko edizioen balorazio positiboa egin zen, bai parte-hartzearen aldetik, eta baita ekimenak erabileran izan duen eraginaren aldetik ere. Une honetan, bete-betean gaude Euskaraldiaren laugarren edizioa antolatzeko lanetan.

La valoración realizada en las anteriores ediciones ha sido positiva, tanto en cuanto a participación como en cuanto a la incidencia que tuvo esta iniciativa en el uso del euskera. En este momento, se encuentran en marcha las tareas de organización de la cuarta edición del Euskaraldia.

*Elkar mugituz egingo dugu* du leloa laugarren edizioak. Aurreko edizioetan moduan, herritarron hizkuntza-ohituretan eragitea eta euskararen erabilera gehitzea izango da helburu nagusia, eguneroko harremanetan euskara lehenetsiz.

El lema de esta edición es "Elkar mugituz egingo dugu". Al igual que en las tres ediciones anteriores, el objetivo principal será incidir en los hábitos lingüísticos de la ciudadanía e incrementar el uso del euskera, priorizando su uso en las relaciones cotidianas.

Azken edizioan bezala, oraingoan ere, entitateek era aktiboan parte hartuko dute ariketan. Eibarko Udaleren kasuan, ariketa modu sakonean egiteko konpromisoa hartu du eta udaleko langileei begira lanketa berezia prestatu du; modu horretan, Udalak daukan jendarte-erantzukizunari heldu nahi dio eta inguruarekin errotuta dagoen entitatea dela adierazi, gure herritarrenganako hurbiltasuna azalduz.

Como en la última edición, las entidades participarán activamente en el ejercicio. En el caso del Ayuntamiento de Eibar, se ha comprometido a realizar el ejercicio de forma exhaustiva y ha preparado un trabajo específico para los trabajadores y trabajadoras del Ayuntamiento, con el fin de abordar la responsabilidad social que tiene el Ayuntamiento y señalar que es una entidad enraizada en el entorno, mostrando la cercanía con nuestros vecinos y vecinas.

Eibarren AKEBAIk ere, dagoeneko, osatua du Euskaraldia taldea, eta lanean dihardute Eibarren ekimena herriko entitateetan eta herritarren artean zabaltzeko.

En Eibar, AKEBAI ya ha puesto en marcha el grupo motor del Euskaraldia, así como, la red de personas que presentará la iniciativa a la ciudadanía y a las entidades locales.

Horregatik guztiagatik, honako hau adierazten dugu:

Por todo ello, realizamos la siguiente

**ERAKUNDE ADIERAZPENA**

Eibarko Udalbatzak bat egiten du, 2025eko maiatzaren15etik maiatzaren 25era, Euskal Herri osoan zehar antolatuko den Euskaraldiarekin, eta ekimenaren sustatzaile izango da Eibarren AKEBAIrekin. Horrenbestez,

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL**

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar se suma al Euskaraldia que se organizará en todo el País Vasco entre el 15 de mayo y el 25 de mayo de 2025, y será impulsor de la iniciativa en Eibar con AKEBAI. Por lo tanto, actuando con

erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatuz, konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Entitateko kideei belarriprest eta ahobizi rolen berri eman eta kideak rol horiek hartzera gonbidatu.

2. Euskararen erabilera sustatzeko prestakuntza eta baliabideak kideen eskura jarri.

3. Entitatea ariketan parte hartzen ari dela ikusgarri egin: espazioak apaindu, txapak banatu, eta barne zein kanpo komunikazioetan Euskaraldia zabaldu.

Horiez gain, ekimenaren sustatzaile izango da Eibarren AKEBAIrekin batera; eta udalkide, herritar eta herriko eragileei dei egiten die parte har dezaten eta “Ahobizi” eta “Belarriprest” izan daitezen.

Ordezkari politikoen egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren esparruaren baitan, eta bereziki, Udalean eta Udalaren ardurapeko entitateetan ekimena zabaltzea.

Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta “Ahobizi” eta “Belarriprest” gehien aktibatzeko urratsak emango dituzte,

responsabilidad y ejemplaridad, se compromete a:

1. Informar a los miembros de la entidad de los roles de belarriprest y ahobizi e invitar a sus miembros a asumir dichos roles.

2. Poner a disposición de los miembros los recursos y la formación para fomentar el uso del euskera.

3. Visibilizar que la entidad está participando en el ejercicio: decorar los espacios, repartir chapas y difundir Euskaraldia en las comunicaciones internas y externas.

Además, junto con AKEBAI, impulsora de la iniciativa en Eibar, hace un llamamiento a todos los miembros del ayuntamiento, ciudadanos y ciudadanas, y agentes del pueblo para que participen y sean “Ahobizi” y “Belarriprest”.

La principal función de los representantes políticos será la de difundir la iniciativa en el marco de Euskaraldia, y en especial en el Ayuntamiento y en las entidades dependientes del Ayuntamiento.

Por lo tanto, en esta iniciativa se darán los pasos necesarios para activar el mayor número de “Ahobizi” y

arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.

“Belarriprest”, tanto si son responsables políticos como si son trabajadores.

Eibarko Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek ahalbidetzeko eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko, eguneroko harremanetan euskarari lehentasuna emanez.

El Ayuntamiento de Eibar adoptará las medidas necesarias para posibilitar estas prácticas lingüísticas y mantenerlas en el futuro, priorizando el euskera en las relaciones cotidianas.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, **Alkate-Udalburuak** bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko bederatziak bost gutxitan, eta nik, Idazkari Nagusiak, horren guztiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas cincuenta y cinco minutos, el **Sr. Alcalde-Presidente** levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. ALKATE UDALBURUA/
Vº Bº EL ALCALDE-PRESIDENTE,
Jon Iraola Iriondo

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO
Daniel Salazar Irusta